

CHERBOURG, NAFARROAKO KOSTALDEA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Cherbourg, 1300. Frantziako Filipe IV.a Ederrak (1268-1313) hiria gotortzea erabaki zuen, Calaisen ondoren Ingalaterrako kostaldetik gertuen dagoen lurmuturra izanik, Frantzia eta Ingalaterraren arteko gatazketan garrantzi handiko gune estrategikoa baitzen.

Ederki gotortu ere, Ehun Urteko Gerra osoan (1337-1453) ez baitzuten hiria behin ere indarrez hartu. Esaterako, Ingalaterrako Eduardo III.aren soldaduen erasoari aurre egin zion hiriak 1346an. Jean Froissart (c. 1337–c. 1405) idazle eta historialariaren iritziz, Cherbourgeko munduko gaztelurik sendoenetakoa zen. Baina horrek ez du esan nahi gerra luzean hiriak jabe bakarria izan zuenik; 116 urte horietan Cherbourgen jurisdikzioa sei aldiz aldatu zen, salerosketak eta itunak medio. Eta ez zen frantziarren eta ingelesen eskuetan soilik egon, Nafarroako Erresumaren parte ere izan zen Iruñetik ia 1.000 kilometrora dagoen portua.

1353an eskuratu zuen Nafarroako Erresumak Cherbourg lehenengoz. Frantziako errege Joan II.a Zintzoak "Cherbourgeko jaurerri eta hiribildua" Joana Valoiskoa alabari eman zion ezkonsari, Nafarroako errege Karlos II.a Evreuxkoarekin (1332-1387) ezkondu zenean. Frantziarren oparia ingelesen zerbitzura jartzea erabaki zuen handik hiru urtera Filipe Evreuxkoa infanteak,




Karlos III.a Noblea eta Leonor Trastamarakoa Nafarroako errege-erreginen mausoleoa, Iruñeko katedralean. Karlos III.ak 1393an berreskuratu zuen Cherbourg Nafarroarentzat, eta hamaika urte geroago 200.000 libarren truke saldu.

baina ofizialki nafar lurraldea izango zen 1378ra arte. Urte hartan, Karlos V.a Frantziakoak hiria setiatu zuen, Nafarroako erregeak Normandian zeuzkan gainerako lurraldeekin batera. Nafarrek setioari eutsi zioten, baina posizioa ahulduta, Cherbourg hiru urtez errentan Rikardo II.a Ingalaterrakoari uztea erabaki zuten. Hiru urteak joanda, Ingalaterrako erregeak ez zuen gune estrategikoa itzuli. Karlos II.a Gaiztoaren ahale-

ginak alferrikakoak izan ziren, eta haren seme Karlos III.ak (1361-1425) lortu zuen hiria berreskuratzea, 1393an.

Cherbourg Nafarroako Erresumaren parte izan zen beste hamaika urtez. Orduan, setioek eta erasoek luzaroan lortu ez zutena diruak lortu zuen. 1404ko ekainaren 9an sinatutako hitzarmenaren bidez, Karlos III.ak 200.000 libarren truke saldu zion Cherbourg Karlos VI.a Frantziakoari. ■



PUBLINEWA GUATEMALA

Amerikako lehen errepide sarea

Cuenca Mirador proiektu arkeologikoko ikerlariak Amerikako lehen errepide sarea maiek eraiki zutela jakin berri dute. Baina lan arkeologikoak ez du oraingoan indusketarik eskatu. LIDAR izeneko gailu bat erabili dute horretarako, laserra baliatzen duen radar modukoa. Horren bidez, Petén oihanean (Guatemala) dagoen Mirador aztarnate-

gia arakatu dute, guztira 700 kilometro koadroko azalera. Orain arte ezagutu gabeko hainbat eraikinen arrastoak aurkitu dituzte miaketan, baina aurkikuntza nagusia 240 kilometrotik gorako errepide sarea izan da. Errepideak K.a. lehen milurtekoak dira, maien inperio aurreklasikoaren gainbehera (K.a. 150) baino lehenagokoak. ■